

## Prensa-oharra

**Bizkaiko Garraio Partzuergoak aldi baterako tituluen eta Creditrans-en tarifak % 50 murriztea onartu du**

- ✓ **Neurri hau 2022ko irailaren 1etik abenduaren 31ra izango da indarrean garraioaren erabiltzaileentzat, eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera tasak berriz ere % 100ean ordainduko dira.**
- ✓ **Euskal erakundeen arteko akordioari esker, Estatuak ezarritako % 30eko beherapena baino handiagoa lortu da, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak % 50eko hobaria lortzeko laguntzak osatu baitituzte.**

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren (BGP) Kontseilu Nagusiak behin betiko onartu du gaur *“Bizkaiko Garraio Partzuergoaren tituluen erabiltzaileei bidaiarien garraio publikoko zerbitzua emateagatiko tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskala”* aldatzea. Ordenantza horrek % 50eko murrizketa aplikatuko du garraioko eta creditranseko aldi baterako tituluen tarifetan aurtengo azken lauhilekoan.

Onartutako aldaketak barne hartzen ditu Espainiako Gobernuak Ukrainako gerraren ondorioei erantzuteko ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan hirietako eta hiriarteko lurreko garraio publikoari begira ezarritako zuzeneko laguntzak, eta, gainera, hobari handiagoa jasotzen du, euskal erakundeen arteko akordioari esker. Akordio horren bidez, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak laguntzak osatuko dituzte, Estatuak ezarritako % 30eko hobaritik Bizkaian aplikatuko den % 50era pasatzeko.

Murrizketa hori irailaren 1etik abenduaren 31ra arte egongo da indarrean; beraz, urtarrilaren 1etik aurrera, tarifak % 100ean ordainduko dira. Eta BGPko aldi baterako titulu guztietan aplikatuko da, baita creditrans eta giza tituluetan ere, baina ez noizbehinkako tituluak (joaneko txartela), akordio honetatik kanpo geratzen baita.

Tarifen murrizketa hori honako zerbitzu hauetan aplikatuko da: metro Bilbaoko 1., 2. eta 3. lineetan, Bizkaibusen Gazte tituluko zerbitzuan, Sopelako eta Leioako tokiko autobus-zerbitzuetan eta Bilbobusen Gazte tituluko zerbitzuan. Hitzarmen honetan jasota ez dauden zerbitzuen (Bilbobus, Bizkaibus, Etxebarribus, Kbus) kreditu-tituluak kasuan kasuko erakunde eskudunek onartu behar dituzte.

BGPko Kontseilu Nagusiak abuztuaren 25ean hartutako erabakiaren bidez, tarifetan hobariak 2022ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean izango duen eragina honako hau izango da:

2022AN INDARREAN DAUDEN TARIFAK						TARIFAK % 50EKO HOBARIA JASOTA				
	1. EREMU A	EREMU A	3. EREMU A	4. EREMU A	5. EREMU A	1. EREMU A	2. EREMU A	3. EREMU A	4. EREMU A	5. EREMU A
CREDITRANS ARRUNTA OHIKOA	0,96€	1,13€	1,23€			0,48€	0,57€	0,62€		
CREDITRANS ARRUNTA FN20	0,77€	0,90€	0,98€			0,39€	0,45€	0,49€		
CREDITRANS ARRUNTA FN50	0,48€	0,57€	0,62€			0,24€	0,29€	0,31€		
GIZATRANS ARRUNTA OHIKOA	0,37€	0,37€	0,37€			0,19€	0,19€	0,19€		
GIZATRANS ARRUNTA FN20	0,30€	0,30€	0,30€			0,15€	0,15€	0,15€		
GIZATRANS ARRUNTA FN50	0,19€	0,19€	0,19€			0,10€	0,10€	0,10€		
GAZTE BILBAO OHIKOA	33,00€					16,50€				
GAZTE BILBAO FN20	26,40€					13,20€				
GAZTE BILBAO FN50	16,50€					8,25€				
BIDAI <sup>50</sup> OHIKOA	33,00€	38,80€	43,50€	57,00€	79,00€	16,50€	19,40€	21,75€	28,50€	39,50€
BIDAI 50 FN20	26,40€	31,00€	34,80€	45,60€	63,20€	13,20€	15,50€	17,40€	22,80€	31,60€
BIDAI 50 FN50	16,50€	19,40€	21,75€	28,50€	39,50€	8,25€	9,70€	10,90€	14,25€	19,75€
BIDAI <sup>70</sup> OHIKOA	39,50€	45,50€	51,00€	63,00€	85,00€	19,75€	22,75€	25,50€	31,50€	42,50€
BIDAI 70 FN20	31,60€	36,40€	40,80€	50,40€	68,00€	15,80€	18,20€	20,40€	25,20€	34,00€
BIDAI 70 FN50	19,75€	22,75€	25,50€	31,50€	42,50€	9,90€	11,40€	12,75€	15,75€	21,25€
GAZTE <sup>70</sup> OHIKOA	33,00€	38,00€	43,50€	52,00€	60,00€	16,50€	19,00€	21,75€	26,00€	30,00€
GAZTE <sup>70</sup> FN20	26,40€	30,40€	34,80€	41,60€	48,00€	13,20€	15,20€	17,40€	20,80€	24,00€
GAZTE <sup>70</sup> FN50	16,50€	19,00€	21,75€	26,00€	30,00€	8,25€	9,50€	10,90€	13,00€	15,00€
BIDAI <sup>ORO</sup> OHIKOA	47,50€	52,50€	57,00€	71,00€	93,00€	23,75€	26,25€	28,50€	35,50€	46,50€
BIDAI <sup>ORO</sup> FN20	38,00€	42,00€	45,60€	56,80€	74,40€	19,00€	21,00€	22,80€	28,40€	37,20€

<b>BIDAI FN50</b>	<b>ORO</b>	23,75€	26,25€	28,50€	35,50€	46,50€	11,90€	13,15€	14,25€	17,75€	23,25€
<b>GAZTE OHIKOA</b>	<b>ORO</b>	40,00€	44,00€	48,00€	61,00€	81,00€	20,00€	22,00€	24,00€	30,50€	40,50€
<b>GAZTE FN20</b>	<b>ORO</b>	32,00€	35,20€	38,40€	48,80€	64,80€	16,00€	17,60€	19,20€	24,40€	32,40€
<b>GAZTE FN50</b>	<b>ORO</b>	20,00€	22,00€	24,00€	30,50€	40,50€	10,00€	11,00€	12,00€	15,25€	20,25€

Neurria urteko azken lau hilabeteetan izango da eraginkorra, eta Metro Bilbaoko kontuetan eragina izango du, enpresaren defizita 8 milioi euro baino gehiago handituz.

Dena dela, erabiltzaileen onurarako tasak % 50 murriztea erabaki da, Eusko Jurlaritzak 11/2022 Errege Dekretuan jasotako laguntzetan galeren % 40ra arte osatzeko ezarri duen neurriari esker. Gainerakoa murrizketa handiagoak onartzen dituzten erakundeek hartuko dute beren gain.

Hala, metropoliaren defizit berri horri aurre egiteko eskema honako hau izango da: 11/2022 Errege Dekretuak % 50eko murrizketa horren % 30eko laguntzak onartzen ditu, % 10 Eusko Jurlaritzak hartzen du bere gain, eta gainerako % 10a Bizkaiko Garraio Partzuergoak ordaintzen du funts propioekin.

Gogoratu behar da Bizkaiko Garraio Partzuergoaren finantzaketa, aldi berean, Eusko Jurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak beren gain hartu dutela, erdibana. Hori dela eta, bi euskal erakunde horien arteko akordioa funtsezkoa izan da Bizkaiko garraio publikoaren erabiltzaileen aldeko % 50eko murrizketa gauzatzeko.